

Zoramena hastear

INAUTERIAK 2007 ▶ 12:00etan hasiko dira eta Asteartita gauera arte luzatuko dira; umorea eta festa giroa izango dira nagusi

JAIALDIAK ▶ Eskualdeko ikastetxe gehienek gaur eta bihar artean egingo dute euren inauterietako festa gaztetxoekin ▶ 2-3-6-7



Prestaketak. Talde guztiak azken ukituekin ari dira; ezker-eskuin eta goitik behera; Kazkabarra taldea, txosnagunea eta San Bernardo taldea. I. TERRADILLOS / E. EZEIZA

hitza

Harpidedunen
txokoa

HITZAko zozketaren 2 harpidedun irabazlek gozatuko dute saria:

Honekin ziber-ileapaindegiko talde sortzaileak aholkatu eta proposaturiko zerbitzu osoa (kolore, dizkira, forma, mozketak, orrazkera)

+ zure ileak behar duen tratamendurako produktua

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



ESTILISTAK

honekin
GORA07
inauteriak

Santa Maria plaza, 1 · Tolosa ☎ 943 67 22 44
www.honekin.com

Profesionaltasuna, esperientzia,
ezagutza, inspirazioa...

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: **943 65 56 95**



1944. urtean, Kabila elkartearen Gargantua

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Hasi dira, hasi dira! Garai batean ere inauteriak ospatzen ziren. Irudian, Tolosako Pablo Gorosabel kalearen ikuspegia 1944-45eko inauterietan, Juanito Lopek Kabila elkartearentzat eginiko Gargantuarekin. **HITZA**

XABIER GARIKANO ▶ INAUTERIZALEA

«Gure bizitzako zati bat dira Inauteriak, behar-beharrezkoak»

Noelia Lataburu. 76 urte bete-tzeko eta sasoi batean. Horrela hartuko ditu Xabier Garikanok gaur hasiko diren Inauteriak. 62 urtez urtero-urtero festa hauek bizi ditu tolosarrak, behin izan ezik. «Urte batean egin dut huts, soldaduskan nengoelako; negar egin nuen urte hartan». Jai berezi hauen inguruan aritu da solasean. **Zer dira inauteriak zuretzat?** Gure bizitzako zati garrantzitsua bat, behar-beharrezkoak. 3 egunez urte guztiko nekeak, kezak, tristurak... alde batera utzi eta ezbehar guztiak ahazten dituzu. Batik bat Tolosako herritarrak elkarrekin igarotzeko garaia da, dantzan eta festa giroan.

Gaur hasiko dira jaiak. Gogotsu al zaude?

Bai, egunero aterako naiz, dantza egin eta, batik bat lagunekin egon. Nire azken desioa da Inauterietan hiltzea, dantzan eta saltoka. Pentsa ba, zenbat gustatzen zaizkidan festa hauek.

Prestatu al dituzu aurtengo mozorroak?

62 urte luze dira eta denetarik probatu dut. Aurtengoa ez dut prestatu baina ganbarara beteta dut. Niretzat garrantzitsuenak ez da mozorroa, pertsonaia horren paperean sartzea baiziki.

Amonaz janzten bazara, amonaz; gaztez janzten bazara, berri-ri, ba, gaztez... Gag modukoak egitea da garrantzitsua eta jendeari zure umorea zabal-tzea.

Asko aldatu al dira Inauteriak azken urteetan?

Egia esan, bai. Lehenago jendea ez zen mozorrotzen, eta gutxiago jantzi politekin. Asko jota baserritarren jantziekin irteten zen kalera. Geroago, txilabaren moda heldu zen, baina niri ez zait gehiegi gustatzen. Nahiago dut pertsonaia bat aukeratu eta horrekin irtetea kalera.

DI-DA BATEAN ▶

Egun bat? Denak. Baina niretzat benetako inauteriak 3 egunak izaten dira, hau da, astelehenetik asteazkenera.

Orduan... Astelenita? Jaia-aren hasiera. Dianarekin saltoka hasi eta beste hiru egunetan jarraitzea.

Eta Asteartitan? Lagunekin jai giroan bazkaltzeko eta ondo pasatzeko aukera.

Hausterre egunean? Poza, nekea ere ageri delako. Indarrak berreskuratzeko Kanariar uharteetara joango naiz, ez dago gaizki, ezta?



Ezker-eskuin: Xabier Garikano, Jose Ramon Garikano, Antxon Agirre, Markos Perez de Gabarain, Joxe Karrera eta Juan Luis Garikano, duela urte batzuk Iparragirre aretoko kanpoaldean. **HITZA**



Garikano, Javier Bello Portu eta Felix Balzarekin batera (1957). **HITZA**

Zein une duzu gustukoena?

Musika entzuten dudanean bihotza ukitzen dit. Dianaren unea asko gustatzen zait, baina orokorrean dena da berezia.

Mozorrorik gustukoena?

Edozein, besteei alarga eragiten badie eta antzerkia egiteko aukera ematen badu behintzat. Nik gehienetan emakume mozorroa aukeratzen dut.

Koadrilan ateratzen zarete?

Bai, orain bost gara. Bide batez, Inauteriak melankolia puntu bat ere badu guretzat, joan direnekin oroitzuten baikara beti.

Hau guztia kontatu ondoren, inajinatzen al duzu zure bizitza Inauteririk gabe?

Ez, ez. Urteko zati bat gehiago da, baina beharrezkoa. Tolosarentzat ezinbestekoa da. ◀

PASADIZOA ▶

Txistorraren historia.

Hogeitamar-berrogei bat urte edo horrela izango ditu Ostegun Gizenean txistorra banatzearen ohitura. Tolosako kaleetan sagardotegiak zeudenean ez zen txistorrik izaten. Etxetik kazuela eramane eta bertan jaten zuten, kupelatik sagardoa hartuz. Donostian Santo Tomas egunean banatzen hasi zirenean hasi ziren ere Tolosan Ostegun Gizenean txistorra banatzen tabernariak.



Itxurazko korporazioa txistorra jaten. L. MONTES

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **lbarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ **Renfe:** 902 24 02 02

▶ **Donostiako autobusa:** 361740

▶ **Tolosalde bus:** 650621

▶ **Leitzaran autob.**: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Lurramendi egotiza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320



TOLOSALDEKO HERRIETAKO EGITARAUA ▶

ZER ETA NON, EGUNEZ EGUN ▶

TOLOSA

▶ OSTEGUN GIZENA

09:13. Etxe-berri-ko oinordekoen Udal bandoa.
11:30. Udal Txistulari Bandak *Inauterietako zortzikoa* joz egingo du urteroko ibilbidea.
11:45. Kabi Alai Elkarteak Korporazioaren pregoia.
12:00. Plaza Zaharrea, suziria jaurtiko dute jaien hasiera iragartzeko.
12:00. Pintxana eta Kabi-Alai txarangaren irteera, Arostegieta kaletik.
16:30. Zezen-plazan xexen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek alaituta. Ondoren, kalejira.
23:00. Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

▶ OSTIRAL MEHE

12:00. Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
16:30. Zezen-plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangek alaituta. Ondoren, kalejira.
20:30. *Ostiral mehe danborrada.* Aurrera elkartetik atera eta Alde Zaharrea barrena.
22:45. Arpegi taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.

▶ ZALDUNITA BEZPERA

10:30. Erraldoi eta buruhandiak. Plaza Zaharretik irtengo dira.
11:30. Kabi-Alai Elkarteak txarangaren irteera.
11:45. Dantzari txikiak kalejira abiatuko da Triangulo plazatik.
17:00. Kabi-Alai Elkarteak txarangaren irteera.
17:00. Haur Danborrada aterako da Geltoki kaletik.
22:30. Tolosako Danborradaren irteera Triangulotik.
23:30. Iraunkorrek eta Oriako txarangek kalez kale arituko dira.

▶ ZALDUNITA

08:00. Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
08:45. Herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea eginez *Inauterietako Zortzikoa* joko du.
10:00. Txarangaren irteera.
10:30. Plaza Berrian sokamuturra.
11:30. Karroza eta konpartsen irteera.
15:45. Herriko txistulari bandak *Idiarena* pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
16:00. Kalejira Urdira Txiki, Sukalde eta Alkoyano

txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazaraino.
16:30. Zezenak zezen-plazan; txarangek eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.
19:00. Dantzaldia Berdura Plazan, Urdira Txiki, Sukalde eta Alkoyano txarangekin.
19:30. Zerkausan *Diskotop* eta *Euskaraokea*.
23:30. Incansables eta Oriako txarangek kalez kale irtengo dira.
23:30. Plaza Berrian kontzertua: Xikinkei eta Losdelgas. Ondoren, *Diskotop*.

▶ ASTELENITA

09:00. Txarangaren irteera.
10:30. Plaza Berrian sokamuturra.
11:30. Karrozen eta konpartsen irteera.
16:00. Kalejira Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.
16:30. Zezenak zezen-plazan; txarangek ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.
19:00. Dantzaldia Berdura Plazan, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.
19:30. Zerkausan *Diskotop* eta *Euskaraokea*.
21:30. Korazonistak plazatik zezen *suzkoa* irtengo da.
23:30. Incansables eta Bonberenea txarangek irtengo dira kalera.
23:30. Kontzertua Plaza Berrian: Bisai eta Dikers. Ondoren, *Diskotop*.

▶ ASTEARTITA

06:00. Herriko txistulari bandak alborada joko du udaletxeko arkupeetan, Berdura plazan eta Gorriti plazan.
08:00. Pattar zezena zezen-plazan. Ondoren, kalejira.
10:30. Plaza Berrian sokamuturra, Kabila txarangek alaituta.
11:30. Karrozen eta konpartsen irteera.
15:45. Herriko txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, *Idiarena* pieza joko du.
16:00. Kalejira Aiz-Orratz, Txapel Haundi eta San Esteban txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.
16:30. Zezenak zezen-plazan; txarangek eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.
19:00. Dantzaldia Berdura Plazan, Aiz-Orratz, Txapel Haundi eta San Esteban txarangekin.
23:30. Incansables Zaharrek txarangaren irteera.
24:00. *Sardinaren hileta* konpartsen irteera Gure Txokoa elkartetik.



Txikiak aurreko urtean bezala protagonista izango dira gaur. HITZA

▶ PIÑATA IGANDEA

Goizean. Poca Tripa txaranga Txilaba elkartearen konpartsa lurreamendi egoitzara joango dira.

ABALTZISKETA

▶ GAUR

14:30-16:00. Pirataz jantzita herrian bueltatxo bat egingo dute eta dantza ere eskainiko dute.

ADUNA

▶ BIHAR

15:00. Frontoian eskolako ikasleen emanaldia.

ALBIZTUR

▶ GAUR

11:30-12:00. *Tatanka-Yotanka* indio festa herriko plazan. Eguraldi txarra egiten badu pilotalekuan egingo da.

AMEZKETA

▶ BIHAR

15:00-16:00. Zumadi eskolako haurrek inauterietako desfilea egingo dute herrian zehar, ondoren guraso elkarteak merienda prestatuko du eskolan.

▶ IGANDEA

09:00-14:00. Talai-dantzariak plaza inguruan arituko dira dantzan.

▶ ASTELEHENA

09:00. Talai-dantzariak baserri ibiliko dira herrian barrena dantzan, 15:00ak arte. Gauean berri, elkartu eta afari legea egingo dute.

ASTEASU

▶ BIHAR

15:30. Frontoira iritsiko dira Pello Errota eskolako inauteri desfilean irteten dutenak, eta ondoren jaialdia egingo dute.

BERROBI

▶ GAUR

9:30-13:30. Haur jolasak izango dira herriko eskolan. Ondoren geletara joango dira mozorrotzera. Bien bitartean gurasoek hamaiketako prestatuko dute, txorixa hain zuzen.

BIDEGOIAN

▶ GAUR

10:15. Indioz jantzita Bidaniko udaletxera joango dira haurrak. Bertan ikuskizun bat egingo dute. Desfilea eginez Gaiatzera joango dira beste emanaldi bat egitera, frontoian. Ondoren, jolasak eta txorixa jatea.
12:30. Bidanira itzulerako bidea egingo dute. Bertara iristean frontoian beste ekitaldi bat eskeiniko dute gerturatzaren diren guztientzako.
14:30. Umeak nahi duten

bezala jantzita doaztela, jolasak egingo dituzte herriko eskolan.

IBARRA

▶ GAUR

9:00-10:00. Jaialdia Uzturpe ikastolan.
10:30. Gelaz-gela mozorroren argazkiak aterako dituzte.
10:45. Jai giroan eta musikaz lagundurik herriko plazara jitsiera.
11:00. Plazan, Haur eskolako 2 urteko ikasleekin elkartuko dira. Musika, buruhaundiak eta jolasak izango dituzte.
11:30. Txistorra banatuko dute hurbiltzen diren guztientzat. Eurria egingo balu, Ikastolako aterpean izango da jai.

IKAZTEGIETA

▶ GAUR

15:15-16:00. Herri eskolan jaialdia egingo dute urtero bezala. Gela bakoitzaren mozorroak sekretu izango dira azken ordurarte.

IRURA

▶ GAUR

12:00. Ikastolako ikasleen inauteri festa plazan. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian.

VILLABONA

▶ GAUR

15:00. Herriko haurrak Errebote Plazan bilduko dira mozorroturik. Ondoren kalejira eta merienda, musika eta *Incansables* txarangekin.
18:00. *El Cid Kondaira* haurrentzako filma eskainiko dute Gurea Aretan. Sarrera dohainik izango da.

ZIZURKIL

▶ GAUR

15:00. Pedro Mari Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotza ikastetxeen kalejira. 16:00ak aldera, ikasleen emanaldia Joxe Arregi plazan.

iragarki laburrak ▶

LANA

Elektrizista. Elektrizista enpresa batek langile autonomo edo kontratupekoak behar ditu. Obrak, industrietarako. 943 80 00 00.

Sukaldari laguntzaileak.

Eskoletarako, udaletarako. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 44 48 66

Gidariak. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

ALOKAIRUA

Pisua: Lekunberrin 60 m2ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukaldea eta 2 logela. Interesatuak dei dezala ondorengo telefono zenbakira: 679 20 14 60.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Gure eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera eskaintzen dizu gure webguneak *zeuk idatzi* izena duen atalean. Horretarako goiko helbidean sartu behar da. ▶

JULIO IBARRA ▶ KAZETARIA

«Gurasoek euskara baloratzea garrantzitsua da»

Julio Ibarrek haur elebidunen gurasoak izan zituen hizpide atzo Villabonan emandako hitzaldian

NAIARA GARZIA

Julio Ibarrek (Bilbo, 1965) seme-alaba elebidunak dituzten guraso erdaldunen inguruko hitzaldia eman zuen atzo, Villabonako Gurea aretoan.

Zeintzu dira gurasoen kezka nagusiak?

Euskaldunak ez diren gurasoentzat kezka nagusiak etxeko lanekin du zerikusia, etxeko lanak euskaraz daudenez, seme-alabeei nola lagundu, alegia. Eta honetaz gain, ea seme-alabek bi hizkuntzetan ikasten badute, bai euskara bai erdara

ongi menperatzeko gai izango al diren.

Gurasoek euskara ez jakiteak seme-alaben hezkuntzan zein ondorio izan ditzake?

Gurasoak euskaldunak badira, ondorioz laguntza gehiago izanen dute euskara hobeto menperatzeko eta praktikatzeko. Erdaldunak badira nolabait beste laguntza batzuk bilatu beharko dituzte. Adibidez, eskolatik kanpoko aktibitateak euskaraz egiten saiatu, batez ere gaztelania eta euskara orekatzeko.

Bilbon egoera zein da?



N. GARZIA

Bilbon euskara nola dagoen galdetuta, erantzun ezberdinak egongo dira ziurrenik, batzuentzat ongi, besteentzat gaizki. Baina ni hasi nintzenean zegoen egoerarekin konparatuz gero, primeran gaudela uste dut. Euskararen egoera ez da bikaina, baina egia da gero eta gehiago entzuten dela. Nahiz eta eguneroko bizitzan beti euskara erabili ez arren, neska-mutil gehienek euskaraz ikasten dute. Hori, Bilbo mailan, aurrerapausu garrantzitsu bat da.

Immigrazioak ikastetxeetan zein ondorio izan ditu?

Immigrazioarekin gertatzen dena da askok hona gero haien lurraldeetara itzultzeko asmoz etortzen direla eta euskara

ikasteak ez duela merezi uste dute. Bilbo inguruan A erduan dauden ia neska-mutil guztiak kanpotarrak dira, eta hori kezkarria da.

Euskara ez dakien famili batean hizkuntza hau bultzatzeko zer da ezinbestekoa?

Euskararekiko jarrera baikor bat izatea. Hori baldin bada zure jarrera, zure seme-alabek nabarituko dute. Gurasoek euskara baloratzea garrantzitsua da.

Elebidun izatea ona da pertsonaren garapenerako?

Dudarik gabe. Bi hizkuntza ikasten dituenak hirugarrena ikasteko errazago dauka. Gainera, ezberdintasunean hazi direnak ezberdintasunak perzibitzeko irekiago daude.

TOLOSA ▶

Arrigainen erakusketa Donostian

Otsailaren 9tik martxoaren 7 bitarte Jose Maria Arrigain tolosarrak inauterien inguruko erakusketa jarri du Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen, Donostian (San Juan, 27). Tolosarrak, inauteriekin batera, inguruko festa hauen zenbait argazki aukeratu ditu *Carnavalia* deritzon erakusketa hau antolatzeko. Bertan Tolosako Inauteriez gain, hain ezagunak ez diren beste inauteri batzuk ere izanen dira ikusgai, nekazal giroa mugatuta egon arren erakargarriak eta interesgarriak direnak. Jose Maria Arrigainek jai hauek oso ongi ezagutzen ditu, urte asko baitaramatza bere kamararekin inauterietako argazkiak ateratzen. Honetaz gain, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kidea da tolosarra.

TOLOSA ▶

'Tolosa Kantuan' DVDa salgai jarri dute

Tolosako Orfeoia egin berri duen *Tolosa Kantuan* DVDa eskuratzeko aukera dago dagoeneko, Elkar Tolosan, Elkar Donostian, Tolosaldea Tour-en eta Tolosako Zunbeltzen eta Maxi Eroskin. Biharko Arpegi taldearen emanaldian ere eskuratu ahalko da.

Sastreria Aranguren
Gizon eta emakume

Ondo pasa Inauteriak!
Korreo, 4 • Tel.: 943 670525
Korreo, 1 • Tel.: 943 673311
TOLOSA

Tolosaldea BUS S.L. Ondo pasa Inauteriak!

Ilbaldia • Ezteiak Agurafariak • Ikastetxeak Kirol taldeak

Tel eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia EtoB,9 • TOLOSA

in→ gremioen koordinazioa
Inauteriak ondo pasa!

argiketariak & igeltseroak
iturkinak & pintoreak
arotzak

eskaiolista & dekoratzaileak
zoruak & leihoak
altzariak & sukaldeak

Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 36 40

TOLOSAGASA
Tolosako energia. Zurea
Energía de Tolosa. Tu energía

Arostegieta, 18 • TOLOSA
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

'ZURE UMEEN DENDA'
sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak
zakuak • maindireak • ohe estalkiak

HAURDUNTZAKO ARROPA-HAUR MODA 0-2 URTE
ONDO PASA INAUTERIARIK!

San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

aldama_tapia
aholkulariak

Tel.: 943 65 03 75
Faxa: 943 65 52 06

Foruen Etorbidea, 7 • 20400 TOLOSA, Gipuzkoa
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldeamatapia.com

FESTAK ONDO PASA!

TOLARGI
Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

AIXA AHOLKULARITZA

Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net

ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
ERRETEGIA - LANDATURISMOA

Egunero irekita
info@ogroturismoarratzain.com
Arratzain Zahar Baseria • Tel.: 943 36 66 63
20170 USURBIL

PILOTA ▶

Renobales AEBn, Euskal Etxearen jaian

Kalifornian ariko da pilotan; artean,
Tolosan eta Ibarran ere partidak daude



Aurrera-Saiazko Luis Galarraga
Ugaitz Renobalesekin. P. R.

NEREA URBIZU

Ugaitz Renobales alegiarra Kaliforniara (AEB) joan zen atzo goizean goiz, bertan pilota partidak jokatzeko asmoekin. Hango Euskal Etxeko jaia egin-goto dute, 25 urte bete dituelako.

Euskadiko Txapelketa Lasak eta Bengoetxeak irabazi zuten iaz, eta opari gisa bidaia hau egitea proposatu zieten: haiekin batera Eskuz Banakako Txapelketako irabazlea ere joatekoa zen, Inuntziaga, hain zuzen, «baina ezezkia esatearekin niri deitu zidaten», argitu zuen Renobales gazteak. Beraz, Iza, Renobales, Lasa eta Bengoetxea joango dira.

Gaur zortzi iritsiko da, gutxi, gorabehera, «hegazkinan denbora asko egin beharko dugu, beraz, ziurra ez da noiz iritsiko garen». Inauterietako garaian doa: «Pena pixka bat badut, baina horrelako aukerak ez dira pasatzen utzi behar: leku berriak ikusteko aukera eta ezagutzeko izango da».

Gaurkoak eta biharkoak

Inauterietan ere Beotibarren pilota zuzenean ikusteko aukera izango da: gaur Beotibarren Aurrera-Saiazko Udaberri Txapelketako senior mailako binakako bi neurketa izango dira 20:00etatik aurrera.

Bihar Ibarran 19:00etan kadeteen eta jubenilen binakako hiru partida izango dira.

ZIZURKIL ▶ POLITIKA



Joxe Arregiri omenaldia hilerrian

Erredakzioa ▶ Joxe Arregiri omenaldia egin zioten 40 lagun inguruk herenegun herriko hilerrian. Bertan, torturapean hil zuteneko 26. urteurrena gogoratu zuten. Besteak beste, Agurra dantzatu, lore eskaintza egin eta *Eusko Gudariak* abestu zuten. IMANOL GARCIA

"Familiarengandik aldendu gabe sendatu ahal izan nadila".

Itziar, Lezo.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. **Kutxan** ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten **kutxaren** Gizarte-Ekintza.

zer nahi duzu bihar?

kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza

76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduerak Gipuzkoan

Osasuna 45 milioi, Onkologiko berria eraikitzeko
Gizarte-Laguntza
Elkartasuna
Hezkuntza
Ikerkuntza eta Enplegua
Kultura
Aisialdia
Ingurumena



www.kutxa.net

kutxa
zer nahi duzu bihar?



PRESTAKETAK ▶

Dantzarako denak prest

Ibarrako Txiribitu eta Tolosako Kazkabarra, Kirikiño, Atsedena, San Bernardo eta Ttenttek aisialdi taldeek gogor lan egin dute azken asteetan Astelenitarako

I. TERRADILLOS - E. EZEIZA

Hemen dira azkenean hainbeste itxaron ditugun Inauteriak. Zazpi eguneko zorarena eta festa dugu aurretik, imajinarioa eta inprobisazioa nagusi izango direlarik. Baina festa behar bezala irteteko ezinbestekoa da alde aurretik guztia ondo prestatzea. Hori egin dute Tolosako nahiz Ibarrako aisialdi taldeetan, azken hila-beteetan, gogor lan egin baitute Astelenitarako dantzaldia ikusgarria izan dadin.

Ibarrako Txiribitu taldeko kideak jogurtaz mozturrotuko dira. Honetarako erabilitako jogurt poteak eramango dituzte soinean itsatsita. Gazteenak aritu dira jogurt poteak biltzen

eta gurasoek egin dituzte mozturroak. Txantxo honekin berziklapena bultzatzea dute helburu. Gabonen aurretik erabaki zuten zertaz mozturrotu, eta ondoren hasi ziren entseguekin. Dantza saioa 5 abestirekin osatu dute.

Tolosako San Bernardo eskaut taldekoak pirataz jantziko dira. Hala, hiru minutu inguruko koreografia eskainiko dute, euskal nahiz atzerriko kantuekin. Gaztekoen parte-hartzea bultzatzeko dantza beraiek asmatu dute, eta txantxoari dago-kionez, begiraleek prestatua da. Beraiekin batera piraten altxorra irudikatuko duen platafoma emango dute.

Kirikiñokoak Far West edo bakeroz eta indioz jantzita ir-



Kirikiño taldekoak azken entseguetako batean. I. TERRADILLOS

tengo dira kaleetara. Hasieran, indioek bi bakero lotuko dituzte eta dantza egingo dute. Musikarekin batera azalduko dira bakeroak eta beraien kideak askatzea lortuko dute, izan ere, indioek beldurtuta alde egingo dute. Gero, sheriff-a etorriko da can-canekin, eta azkenean guztiak lagun eginik elkarrekin dantzatzeko dute.

Ttenttek aisialdi taldekoak, berriz, 80. hamarkadara itzuliko dira Fama musikala irudikatuz. Hiru taldeetan egingo dute dantza, horietako bakoitzak zati bat interpretatuz. Azkenean, Famako ohiko abestiarekin guztiak batera egingo dute dantza, eta gero, New York-eko taxi horia atera eta gainera izog bukatuko dute saioa.

25 urte lan eta lan

Kazkabarrako taldea osatzen duten 300 kideak Argitxoz mozturrotuko dira. Hau ikastoletan euskararen alde aritzen den pertsonaia da. Aurten taldeak 25 urte betetzen dituen omenaldi berezia egin nahi izan diote ikastoletako ikurrari. Taldeko txikienek *Betizu*-ko abesti batekin dantzatzeko dute, eta helduenek Skalariak-en batekin. Batxilergoko 1. mailako ikasleak arduratu dira koreografia eta platafoma egiteaz.

Atsedena aisialdi taldea ere bere 25. urteurrena ari da ospatzen aurten. Horregatik, taldekide guztiak berdin jantzita atera ordez, batzuk aurreko urteetako jantziak eramango dituzte soinean, horien artean, gladiadore, eguzki, ilargi eta sorgin, esaterako. Gainerakoak galaz jantziko dira. Hauek ere, euskarazko nahiz atzerriko abestiekin dantzatzeko dute Astelenitarako, goiz nahiz arratsalde.

TXOTX

Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparragirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzea

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

"Xirimiri" Txokolategia

Gora inauteriak!

Errementari kalea, 40 20400 Tolosa Telef. 943 67 62 23

hitza Harpidedunen txokoa PILOTA PARTIDUETARAKO SARRERAK

OTSAILAK 18 • IGANDEA
[17:00etan]
AGIRRE - BEGNO // CHAFEE-NALDA II
KOKA - OTXANDORENA / GONZALEZ - PASCUAL
ALBIZU - RAI // DEL REY - APEZTEGIA

Aspek antolatuta igandean eta astelehenean Beotibarren jokatzeko diren pilota partidueterako bi harpidedunentzako bina sarrera zozkatuko ditugu!
Zozketan parte hartzeko delitu larunbatean goizeko 09:00tatik 13:30era
943 65 56 95 telefono zenbakira.

OTSAILAK 19 • ASTELEHENA
[16:30etan]
GALARZA V - ELKORO // BERAVALUZE IX - GALARZA VI
MTZ. DE IRUJO - ZUBIETA // TITIN III - LASA III
BALEZTENA - URBERUAGA // APEZTEGIA - ALUXIN

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak ostero



AIISIALDI TALDEAK ▶

Hilabeteetako prestaketan ondoren, Astelenitan erakutsiko dute Tolosako eta Ibarako aisi taldeetako gazteboek zer ikasi duten. Goiz nahiz arratsalde ibiliko dira kaleetan beraien koreografiak dantzatzan.

TXIRIBITU

Mozorroa. Jogurtaz mozturiko dira eta best koreografia ezberdin dantzatzuko dituzte. Soinean erabilitako hainbat jogurt itsatsita izango dituzte. **Partaideak.** 35.

SAN BERNARDO

Mozorroa. Pirataz jantziko dira eta beraiekin plataforma bat eramango dute, gaineen kutxa bat eta palmerak dituela. **Partaideak.** 105.

KAZKABARRA

Mozorroa. Argiboz, ikastoletan euskararen alde



Atsedena taldekoak. i. t.

jarduten den pertsonaiaz mozturiko dira. Euskal kantuak oinarri hartuz, koreografia ezberdinak eskainiko dituzte haur nahiz gazteboek. **Partaideak.** 300.

KIRIKIÑO

Mozorroa. Far West. Lau mozturiko desberdin jantziko

dituzte: cowboy, indio, sheriff eta can-can.

Partaideak. 283.

TENTTEK

Mozorroa. Fama musikala antzetzuko dute, 80. hamarkadara itzuliz. Hiru taldeetan banatuko dira urtero bezala: gazteboenak ibura klasikoagoaz balet arroparekin; tartekoak, telesailean bezala, berogarriekin eta petoekin; helduak, galaz, hau da, neska soinekoarekin eta mutilak alkandora eta korbatarekin. **Partaideak.** 160.

ATSEDENA

Mozorroa. Aisialdi taldearen 25. urteurrena dela eta, partaideetako batzuk galaz jantziko dira, eta beste hogei lagun-edo, berriz ere aurreko urteetako mozturoroei aterako dira: gladiadorez, eguzkiz, ilargiz, sorginez... **Partaideak.** 100.



Tenttek aisialdi taldeko kideak dantzaz. ESTI EZEIZA



San Bernardoko gazteak Astelenitako koreografia prestatzen. i. t.

Giro alternatiboa bultzatuz

Mugimendu desberdinetako Tolosaldeko zortzi taldek osaturiko txosna batzordeak egitarau oparoa prestatu du Inauterietarako

I. TERRADILLOS - E. EZEIZA

Inauteriak iristearekin batera, txosna batzordeak ere dena prest dauka tolosarrek nahiz kanpokoek ondo pasa dezaten «giro alternatibo eta euskaldun batean».

Aurten ere, gizarte arlo desberdinetako talde ezberdinek egingo dute lan Alondegian kokaturiko karpan. Inauteri hauetako txosna batzordea ondorengo taldeek osatzen dute: Bilgune Feminista, AHT gelditu! elkarlana plataforma, Euskal Herria Sozialista aldiakaria, gazte mugimenduak, ezker abertzalea, Fiantza taldea, Euskal Herria Eraiki eta Ikasle Abertzaleak.



Azken ukituak ematen Alondegian kokaturiko karpari. E. EZEIZA

Duela hiru urte arte txosnak Euskal Herria plazan ipintzen ziren. Baina faktore ezberdinak medio, udal txosna kideekin eta inguruko bizilagunekin adostu zuten, txosnak eta barrakak txandakatuz joango zirela urtero hiru gunetan zehar. Hala, aurten, Alondegian egokitu zaie txosnei, eta geltokian barrakei.

Egitarauari dagokionez, tolosaldeko musika talde desberdinak bultzatu nahi izaten dituzte. Bestalde, gazteentzako egitarauaz gain, haurrentzako programazioa ere prestatu dute, eta lehiaketa ezberdinak gauzatuko dituzte, «beti aurrera begira».

OSTEGUN GIZENA

12:30. Txupinazo alternatiboa eta pregoia. Honekin batera, txistorra jatea eta trikitixa izango dira.

OSTIRAL MEHEA

19:00. Festa kirolak (gazteen txakak): horien artean, zurito apustua, bote erreleboa, xaxkiarraitza eta globo jolasak.

20:30. Zahagi ardoa: Bakoi-tzak eraman beharko du jatekoa baina ardoa eta sagardoa dohan izango da.

22:00. Kontzertua: Nekro, Edan eta talde sorpresa ariko dira.

ZALDUNITA BEZPERA

Umeen danborradaren ondoren. Ume jolasak, mural erraldoiaren margotzea, arpegia margotzea eta txokolatada izango dira.

ZALDUNITA

19:00. Bonberenea txaranga ariko da giroa alaitzen.

ASTEARTITA

21:00. Inauterien hasieran bezala, pregoia, txupinazo, txistorra jatea eta zahagi ardoa izango dira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

► hilberriak ► urteurrenak ► eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

AGENDA ▶

INAUTERIAK

Tolosa. Ostegun Gizona: 09:15ean, Etxe-berriko oinordekoen Udal bandoa. 11:30ean, Udal Txistulari Bandak *Inauterietako zortzikoa* joz egingo du ohiturako ibilbidea. 11:45ean, Kabi Alai Elkarte Korporazioaren pregoia. 12:00etan, Plaza Zaharrean, suzuria jaien hasiera iragartzeko. 12:00etan, Pintxana eta Kabi-Alai txarangen iteiera, Arostegeta kaletik. 16:30ean, Zezen-plazan xexen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek alaituta. Ondoren, kalejira. 23:00etatik aurrera, Aurrera Kirol Elkartearen danborrada. **Ikaztegieta.** 15:30ean, Inauterietako ohiko jaialdia, eskolako gimnasioan. **Irura.** Inauteri festa plazan, 12:00etan, eskolako haurtxoekin. **Villabona.** Haur eskola eta herriko ikastetxeetako haurren mozorro kalejira Incansables txarangearekin. Ondoren, askaria Errebote plazan. **Zizurkil.** 10:45ean, Pedro Mari Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotza ikastetxeen kalejira egingo dute. 11:30etik aurrera, emanaldia Joxe Arregi plazan. **Tolosa.** Intxurre elkarte egunero irekiko dtue, 18:00etatik aurrera. Bokatak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 61. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GORA ETA BEHERA ▶ ESTI EZEIZA / IÑIGO TERRADILLOS



Guztia prest festa eroaren hasierarako

Zein polittak diren hemengo neskatilak, ze polittak diren loreak zelaian, ze polittak diran txerriak kaioian.
 Inauterien etorrera iragarri, azken egunotan herriko kaleetan txaranga doinuak, tabernak apainduak, balkoiak mozorrotuta, elkarrekin prest... izan dira nagusi. Eta azkenean heldu dira heldu Inauteriak! Mozorro eta osagai guztiak prest izango dituzte tololar gehienek eta, batik bat, festarako gogoa pil-pilean. Zerbait berezia dute bai, dudarik gabe, inauteri hauek. Beti berdina baina beti ezberdinak; beti nekea eragiten dutena, baina nekaezinak; beti gogotsu hasten direnak, bai eta gogotsu amaitu ere. Guztion parte-hartzea beharrezkoa izango da urtero-urtero errepikatzen diren festa hauek errepikaezinak izan daitezen. Itxurazko korporazioen kideek gaur 12:00etan Tolosako udaletxeko balkoi nagusitik iragarriko duten bezalaxe — batzuentzat dagoeneko iragarri du—... Gora Tolosako inauteriak 2007! Eta ondo pasa guztioi.

E. EZEIZA / I. TERRADILLOS

AGURRAK ▶



Inauterietan ere, euskal presoak ebaxera!!! Zatozte denok sagardotegira.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...